

noaua



“Aginagan herri kooperatiba bat sortzeko asmoa dugu”

**Nerea Zinkunegi:
“Gozatzen ari naiz pinturarekin”**

Argazkia: Pasaiako portua, Kutxa fototeka



Ontzigintza Usurbilgo jarduera ekonomiko nagusiena izan zen XVI. eta XIX. mendeen artean



Apirilak 2, igandea

IRATI

Filmaren emanaldia

Ordua: 19:00.

Non: Sutegiko auditorioan

Nori zuzendua: helduei

sarrerak: alde zuzetik salgai 6€tan
 usurbilkultura.eus plataforman edo Noaua!ko egoitzan.
 Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
 sarrera bat NOAU!ko egoitzan.



GOLDWELL
ELUMEN

ile a pa i n d e g i

mistoa

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

NOAOA
 BIDAIAK

Uzbekistan

IRTEERA 2023ko maiatza

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
 Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Albisteak iruditan

Lanbide Eskolak akordio berri bat sinatu du Aldundiarekin

José Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak eta Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxeko zuzendari den Isidro Zalduak hitzarmen bat sinatu dute bi entitateen arteko lankidetzeta-sistema bat antolatzeko, energia aurrezteko eta energia berriztagarrien erabilpena modu eraginkor batean sustatzeko.

Jarduera-plan hau hainbat ekin-tza-motek osatuko dute. Alde bate-tik, eraikinetan energia berriztagarriei buruzko prestakuntza-ikastaro batzuk emango dituzte. Horrez gain, aeroterma-dun eraikinak girotuko dituzte; bulegoe-tako, kiroletako eta laguntzako eraiki-netako energia-kontsumoa murriztuz.

Gainera, jardunaldi teknikoak anto-latuko dituzte foru aldundiko eta uda-letako teknikarientzat, enpresa pribatuko eta merkataritzako profesionalentzat. Gai hauek hartuko dituzte ardatz: aeroter-miako sistemetan izandako ondorioak,



Foru Aldundiaren eta Usurbilgo Lanbide Eskolaren arteko hitzarmena aurreko astean sinatu zuten.

eraikin publikoetako eguzki-instalazio fotovoltaikoen diseinua eta mantentzea, udalerriko elektromugikortasuna integratzea eta % 100 berriztagarria den jatorria duen elektrizitatea kontratatze-gakoak.

Herritarrei begira, dibulgazio, senti-

bilizazio eta erakustaldi-bisitak anto-latuko dira, autokontsumoko instalazioei eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioei buruzko informazioa helarazteko xedez. Jarduera hauek guztiak garatzeko, Ingurumen Departamentuak 50.000 euro jarriko ditu.

Laburrean

Azken aldizkaria

Martxoaren 31n kaleratuko dugu oporraldi aurreko azken aldizkaria. Hilaren 27an bidaliko dugu inprentara. Egun hau baino lehen helarazi, beraz, argitaratu nahi dituzuen oharak. Bideotatik: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321.

Ordu aldaketa

Erlojuen orratzak aldatzeko garaia bueltan datorrigu. Martxoaren 25etik 26rako goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira. Modu horretan, udako ordutegia izango da indarrean. Beranduago ilunduko du aurrerantzean.

Sareren mobilizazioa

Egutegi kontuagatik, oraingoan martxo txoko bosgarren ostirala izango da azkena. Hilaren 31n egingo du Sarek euskal presoeren eskubideen aldeko mobilizazioa; ohi bezala, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Usurbilgo Udala
Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Gehiago taburik ez

Duela hilabete pasatxo Jakub Jankto futbolariak bere homosexualitatea aitortu zuen. Lehenbizikoa izan da Espainiako lehen mailako futbol munduan. “Ez dut gehiago ezkutatu nahi”, zioen 27 urteko jokalaria. Getafen jokatzeko, baina Pragako Spartan urte betez jokatzeko baimena du.

Urte askoan zehar homosexualitatea gai tabua izan da kirol esparruan. 1990ean Justin Fashanu izan zen Ingalaterrako lehen mailako jokalaria bere gay izaeraz garbi hitz egin zuena. Nottingham Foresten jokatzeko, hori jakin bezain pronto, ekipoak taldetik bota zuen eta zaleen, taldekideen eta entrenatzaileen trufak pairatu behar izan zituen. Bere anaiak ere “paria” bat zela adierazi zuen. Makina bat ateetan jo zuen, baina ez zuen beste talderen batean kontraturik lortu eta depresioak jota, 1998an bere buruaz beste egin zuen. Ordutik hona, oso gutxi izan dira beren homosexualitatea adierazi duten futbol jokalaria, eta izan badira, euren kirol ibilbidea amaitu ondoren eman dute pauso hori.

“Mundu guztiak bezala, nik ere nire bizitza askatasu-



Jakub Jankto futbolariak duela gutxi aitortu zuen bere homosexualitatea. Merel eta Ana Romero ere futbolariak dira eta bikote bat osatzen dute.

LUIS ARANALDE

“1990ean Justin Fashanu izan zen Ingalaterrako lehen mailako jokalaria bere gay izaeraz garbi hitz egin zuena. Nottingham Foresten jokatzeko eta taldetik bota zuten”

nean bizi nahi dut, beldurrik gabe, aurreiritzirik eta biolentziarik gabe, baina maitasunez. Gay naiz eta ez dut gehiago ezkutatu nire izaera. Bizitza osoan banekien homosexuala nintzela, baina orain esateko eta neu izateko prest nago. Ez dut gehiago gezurretan bizi nahi”.

Erreakzioak oso positiboak izan dira. Madrigo eta Pragako klubek guztizko errespetua eta erabateko babesa adierazi dio-

te. Realekoek ere txalotu dute bere jarrera hori ortzadarraren bandera eta esaldi hau alboan: “futbola denentzat da”. UEFArentzat “egiazko inspirazioa izan zara besteentzat eta Europako futbola zurekin dago”. Valdanoekin ere guztiz bat nator esaten duenean “txapela kentzen dut mutil horren aurrean, baina homosexuala dela aitortzeko ausardia beharra izateak, lotsa eman behar liguke futbol munduan gabiltzanoi”. Futbol kazetari batek esaten zuena: “Ez zaigu axola nor maite duzun, nor zaren baizik”.

Duela egun batzuk emakumearen nazioarteko eguna ospatu genuen. Ari garen gaiari lotuta, esan beharra daukagu honetan ere sekulako lezioa eman digutela. Tennis munduan adibidez, Martina Navratilov-

vak 1981an aitortu zuen lesbiana zela; Amélie Mauresmok (Frantziak eman duen emakume tenislari onena) 19 urterekin ez zuen inongo arazorik izan lesbiana bezala agertzeko.

Futbol esparruan berdin. Merel eta Ana Romero futbolariak bikotea osatzen dute. Internazionalak dira eta Anak honela dio: “futbol femeninoan ez dira batere arraroak bikote lesbianak. Ez da futbol maskulinoan bezala; hor tabu bat izaten jarraitzen du. Guk erabateko askatasuna izan dugu emakume batez maitemindu garela esateko. Hemendik denbora gutxira harritu egingo gara hau arazo bat izan dela jakiteaz”.

Gai honen harira, esan beharra dago mendeetan zehar emakumea askatasunari oda bat izan dela, sexual libertatea barne. Duela 2.600 urte Lesbos, greziar irlan, Safo poetak lirika goren mailara eraman zuen. Bere poemek eta poesiek emakumeen arteko harremanak kantatzen dituzte. Batzuek ez dute jakingo agian hortik datorrela lesbiana hitza. Aita Santu Gregorio VII.ak Saforen liburu guztiak erretzeko agindua eman zuen XI. mendean. Eskerrak artaburu hark idatzi guztiak ez zituen harrapatu! Ezmoralak omen ziren, noski.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Komikia



XVI. eta XIX. mendeen artean, ontzigintza izan zen Usurbilgo jarduera ekonomiko nagusia

Oriak dituen ezaugarri naturalei esker, ardatz garrantzitsua izan da ibaiaren arro osoan. Harreman sozialak eta ekonomikoak artikulatzeko garaian funtsezko papera jokatu du. Hori dela eta, historiaren garai luze batean erria aberastasun iturri nagusia izan da Oria inguruko herritarrentzat. Merkataritza, arrantza eta ontzigintza sektoreetan nagusiki. Azken honetan erreparatu dugu ondoko erreportajea osatzeko garaian.

Lourdes Odriozola Oyarbide izango da ontzigintza sektorea gehien eta ondoen ikertu duen historialaria. Argitalpen ugari plazaratu ditu, besteak beste, *Oria ibaiko untziak* (askoren artean idatzia, 1994. urtean argitara emana), *Construcción naval en el País Vasco, siglos XVI-XIX* (Pasaia Portua, 2002) eta *Mutiozabal, constructores navales del Oria* (Aquarium, 2014) liburuak.

Lourdes Odriozolaren esanetan, ez dago argi noiz eraiki ziren lehen ontziolak Oriari. Zaila da data bat zehaztea. Merkataritza jarduerari erantzuteko eraiki zirela, hori argi samar dagoela dio Odriozolak. Orioko portuan burdinaren garraioa ugaritzen hasi zenean, orduan loratu zen ontzigintzari lotutako industria Usurbilen, Aginagan, Orion eta Aian.

Oriako ontziolen inguruko lehen agiriak XVI. mende erdialdekoak badira ere, aurretik



Usurbil eta Aginagako ontziolen inguruko argazkirik ez da apenas. Pasaiaiko San Roke ontziolaren oso antzekoak izango ziren. Argazki hau eta portadakoa 1920koak dira, Martin Ricardok eginak. Iturria: kutxateka.eus

ORIA IBAIAREN ARROA

Ontzigintzaren sektorean, Hego Euskal Herriko gune garrantzitsuenak izan zen hainbat garaitan

nao batzuk ere eraikiko zirela uste da.

Artisau-lana zena, industria bilakatuko da denborarekin. Lourdes Odriozolak *Mutiozabal* liburuan dioenez, XVI. mendetik aurrera ugaldutako ontziolak eta hori azaltzeko hainbat arrazoi aipatzen ditu: Oria ibaiaren arroak dituen ezaugarri orografikoak, ontzigintzarako kalitatezko egur ugari eskura, materiala ibaian barrena garraiatzeko erraztasunak, eskulan kualifikatua eta burdinola ugari inguruan (ontzi-

gintzarako beharrezkoak ziren elementu metalikoak egiteko). Ezaugarri hauei guztiei esker, Oria ibaiaren arroa oso produktiboa izan zen XIX. mende amaierara bitarte. Eta ontzigintzaren sektorean, Hego Euskal Herriko gune garrantzitsuenak izan zen hainbat garaitan.

Fidagarritasun handikoak

XVI. mendetik aurrera, Oriako ontzigileek ospe handia izango dute. Tamaina handiko ontziak egiten zituzten garai hartan, errege armadaren enkarguei erantzun nahian. Indietako lasterketa ere orduantxe hasi zen eta bezero hauek ere tamaina handiko ontziak behar izaten zituzten. Oriari ekoiztako barkuek fidagarritasun handikoak ziren eta horri esker ontzi-

lak ugaltzen joan ziren. XVII. mendean, ontzigintza izan zen industriarik nabarmenena Oria ibaiaren arroan.

Dibertsifikaziorako joera

XIX. mendera arte lan asko egin zen Oriako ontziolatan. Neurri batean, dibertsifikaziorako joera izan zutelako. Ontzi handiez gain, merkataritzarako, garraiorako zein arrantzarako txalupak egin zituzten. Tamaina eta tankera ezberdineko ontzien ekoizpenari esker, bezero ezberdin ugari izan zituzten. Dena den Lourdes Odriozolak *Mutiozabal* liburuan dioen moduan, ontzigintza sektoreak ez zuen ibilbide lineal bat izan. Oparotasun, hazkunde eta atzeraldi garaiak ezagutu zituen.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
Patxi
latetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Andatza-Irisasi mendiko zuhaitz enborrak oso preziatuak ziren ontzioletan

Harrigarria dirudi baina halaxe izan zen. XVI. mendetik XIX. mendera bitarte, Usurbilen eta Aginagan lau ontziola egon ziren eta bertan ehunka itsasontzi egin ziren. Gerrarako zein kolonizazioarako galeoiak eta fragatak, arrantzarako zein garraiorako ontziak eta txalupak. Eta estimazio handikoak ziren gainera. Gaur egun, ia ez dago jarduera honen arrastorik erriotan. Erreportaje honen bitartez, Usurbilgo eta Aginagako ontzigintzaren inguruko datu batzuk batu nahi izan ditugu.

Ontziolen fenomenoa ulertzeko arrazoiak

XVI. eta XVII. mendeetan, Usurbil eta Aginaga funtsezkoak izan ziren ontziolen ekoizpenean. Zer dela eta? *Usurbil, Iraganari begiraturaz* (Usurbilgo Udala, 2001) liburuak arrazoi hauek nabarmentzen ditu:

1. Kokagune estrategikoa.


Espainiar eta frantziar monarkiek liskar ugari izaten zituzten. Ontziolak helburu militar bihurtzen dira eta Espainiako monarkiak babestu egingo ditu. “Hondarribia, Irun eta Donostialdeko defentsa sistemei esker, lur eraso militarretatik babestuko ditu Oria ibaiko ontziolak”.

2. Kantauri itsasotik gertu.

Orian eraikitako ontziak modu eroso eta azkar batean iritsiko dira Pasaiara edota Kantauri itsasoko beste edozein portura. Era berean, Bizkaitik edo beste lekuetatik beharrezkoak ziren lehengaiak edo tresneriak ibaian zehar eskuratzeko aukera eskaintzen zien Oria inguruko ontziole.

3. Ezaugarri topografikoa.

Oria ibaia gurean dituen meandroak eta zabaldurak.



Itsasontzi bat gradan, eraikuntza eremuan. Ontziolena XVI. eta XVIII. mendeen arteko jarduera ekonomiko nagusia izan zen Usurbilen. Argazkia: Marqués de la Vitoriaren arkitektura hiztegia jasoa (Madrilgo Ontzigintza Museoa).

BEZERO NAGUSIAK

“Ontziolen urrezko aroan, bi izan ziren bezero nagusiak: Espainiako Errege Armada eta Indietako kolonizazioan aritu ziren konpainiak”

Ezaugarri topografiko honek posible egingo du ontzien uretaratzea erraza izatea.

4. Andatza-Irisasiren ekarpena.

Usurbilgo mendiak eskaintzen zuen egurra kalitatezkoa eta ugaria zen. Andatza-Irisasiko zuhaitz enborrak oso preziatuak ziren ontzioletan eta fama handikoak sektorean.

5. Eskulan kualifikatua.

Usurbilgo herritar asko aritzen ziren ontzioletan lanean. Egur langintzan ere trebeak ziren. *Usurbil, Iraganari begiraturaz* liburuan jasoa datorrenez, “honek posible egingen zuen lan kostua murriztea, ez zelako beharrezkoa kanpotik eskulan kualifikatua ekartzea”.

Zer nolako ontziak egin ziren Orian?

XVI. eta XVII. mendeetan, tona

handiko ontziak eraiki ziren eta bezero nagusiak bi izan ziren: Espainiako Errege Armada eta Indietako kolonizazioan aritu ziren konpainiak.

XVIII. mende erdialdean birmoldaketa bat emango da. Espainiako monarkia beste lurralde batzuetako untziolekin

hasiko da lanean, Indietako sukarra apaldu egingo da eta, horren guztiaren ondorioz, arrantzarako zein garraiorako ontziak egiten hasiko dira. Ontzien ezaugarriak eta tainak aldatu egingo dira. Txikiagoak, eta bezero partikularrei bideratuak.

San Jose galeoia Mapilen eraiki zen XVII. mende amaieran



San Jose galeoia lehertu berritan. Samuel Scott margolariaren koadroa.

San Jose 64 kanoi eta 3 mastako galeoia zen, Espainiako itsas armadaren enkarguz eginga. Francisco Antonio Garrotek diseinatu eta Pedro Arostegik eraiki zuen Mapiloko ontzian. Eraikuntza 1698an amaitu zen.

1708ko ekainaren 8an

Karibeko uretan hondoratu izan zen. 2015eko abenduaren 5ean Kolonbiako Gobernuak aurkitu egin zuela iragarri zuen. San Joseren barruko altxorak 17.000 milioi dolarreko balioa izan zezakeela zabaldu zen orduko hartan.

Ontziolen loraldia eta gainbehera

XV. eta XVII. mendeen arteko loraldia

XV. mendekoak dira lehen erreferentziak. Dena den, ontziolen garai oparoa XVI. mendearen erdialdean hasi zen. Espainiako Errege Armadak itsasoan borrokatzeko premiazkoak izango ditu itsasontziak eta horrek ontziolen hedapena ekarriko du. Beste bi fenomeno ere eman ziren garai horretan: Indietako kolonizazioa eta merkatal jardueren ugartzea.

Bezero hauen gutzien premiak asetzeko, tona handiko ontzi ugari egin ziren Gipuzkoan eta horietako asko Usurbil eta Aginagako lurretan eraiki ziren. Arrutarte (Rutarte), Mapil eta Urdaigako ontziolen izenak ageri dira garai hartako dokumentazioan.

XVIII. mendean, gainbeheraren hasiera

XVIII. mendearen erdialdean ordea, egoera aldatu egingo



Uriberri eta Mapil artean kokatutako ontziola. Maketa hau Donostiako Aquiriumean aurkitzen da. Argazkia: Wikipedia.

BIRMOLDAKETA

“XIX. mendean birmoldaketa bat emango da sektorean eta tamaina txikiko ontziak eraikitzen hasiko dira, garraiorako zein arrantzarako pentsatuak”

da. Borbondarrek Espainiako koroa eskuratu zuten eta ontziolen ekoizpena beste he-

rrialde batzuetara zabalduko dute. Galiziarra, besteak beste. Euskal Herriko ontziola asko lanik gabe geratuko dira eta, horren ondorioz, ekoizpenak behera egingo du Gipuzkoan. Testuinguru honen aurrean, ontzigileak egoera berri honetara egokitzea beste erremediorik ez dute izango eta tona zein tamaina txikiko ontziak egiten hasiko dira. Helburu militarreko itsasontziak egiteari utzi eta

arrantza-ontziak ekoizten hasiko dira.

Mapilen ekoiztutakoak ageri dira mende horretako paperetan, baina horrek ez du esan nahi besteak desagertuko zirenik.

XIX. mendea, birmoldaketa garaia

Oriako ontziolak krisian dira, desagertu dira garai bateko bezeroak eta ekoizpenaren dibertsifikazioari ekin beharko diote. Birmoldaketa bat emango da sektorean eta tamaina txikiko ontziak eraikitzen hasiko dira, garraiorako zein arrantzarako pentsatuak.

Aro honetan Mapil eta Zakoetako ontziolak lanean jarraituko dute eta sona handikoak izaten segiko dute. Orduko agiriak diotenez, forma eta tamaina ezberdineko ontziak egin ziren Oriako ibaian. Eta Gipuzkoan eraiki zen lehen lurruntzia Aginagan egin zen, Uriberriko ontziolan, 1877. urtean.

Usurbil eta Aginagako ontziola nagusiak

Usurbil, Iraganari begiratu liburuan lau dira nabarmentzen diren ontziolak: Urdaigako edo Urdazaga, Rutarte edo Arrutarte, Mapil eta Zakoeta.

Urdaigako edo Urdazaga

Ontziola honen lehen erreferentzia 1542. urtekoa da. Urdaigako Torrearen, alegia, Zatarain jauregiaren alboan aurkitzen zen. Eta bertatik bertara, Urdaigako kaia.

Rutarte edo Arrutarte

Mapil eta Zakoetako eremuen artean kokatzen zen. Ontziola honi buruzko lehen erreferentzia 1600. urtekoa da.

Mapil

Usurbilgo ontziola garran-



Oria ibaiko ontziolak XVI-XX. mendeetan, Jesus Mari Peronaren laguntzaz egindako kokapena. 6. ontziola: Uriberri-Mapil (XVI-XX m). 7. ontziola: Zakoeta (XVI-XIX). 8. ontziola: Urdaigako ontziola (XVI-XVII). Iturria: ‘Oria ibaiko ontziak’ liburua (askoren artean, 1994).

tzitsuenan izan zen. Orain urte gutxi arte Mapil baserriaren inguruan aurkitzen zen. Mapilek badu abantaila bat: Oriako ibaiak bertan duen meandroak eta zabalguak ontziak uretaratzeko leku aparta eskaintzen du.

Mapil inguruko ontziolan itsasontzi ekoizpena handia izan zen denbora luzez. 1657. urtetik 1662. urtera bitarte, lau galeoi egin ziren Mapil aldean. Atera kontuak. Tamaina ezberdineko ontziak egiten zituzten eta agiri

askotan nabarmentzen da ontziola hauen kalitatea.

Zakoeta

1831. urteko agirietan Zakoeta eta Mapil nabarmentzen dira, kalitate eta tamaina handiko ontziak egiteko bere gaitasuna azpimarratuz. “1817-1840 urteetan Zakoetako ontziolen ekoizpena zerranda trinkoa egin daiteke”, Lourdes Odriozolaren ikerketa lanetan jasoa datorrenez. “Datu hauetatik bi ezaugarri dira azpimarragarriak. Lehen, ontzien tamaina txikia; eta bigarrena, ontzigileen artean bazela bat oso aktiboa izan zena: Miguel Antonio Mutiozabal”. Gerora, Oriako finkatuko den ontzigilea.

Beñat Ibaieta: “Mapilen 1.300 tonako kargari eusteko moduko ontziak egin zituzten”

Beñat Ibaieta zumaiarra Euskal Bateleroen Elkarteko zuzendaria da, usadiozko ontzien berreskurapena eta erabilera bultzatzeko sortua. Horretaz gain, ontziolen inguruko hitzaldiak ere eskaini izan ditu. Duela urte batzuk Mutiozabal ontziolari buruz aritu zen Orion. Ibaietaren esanetan, “gaur egun zaila da imaginatzea garai hartan zer nolako gaitasuna zegoen hemen. Ontziolena mundu mailako industria bat izan zen”.



Beñat Ibaietaren esanetan, “haritzak modu jakin batean behartzen zituzten, gero ontzigintzarako moldatu ahal izateko”.

NOAUA! XV. eta XVI. mendeetan ontziola asko egon ziren Orián eta estimazio handikoak ziren gainera, ezta?

Beñat Ibaieta. Hori da. Orain arte ezagutaraziak izan diren ontziola nagusi horiez aparte, beste batzuk ere egon ziren. XVI. eta XX. mendeen arteko agirietan 10 bat ontziolen aipamenak jasota daude. Usurbildik hasi eta ibaiaren bokaleraino.

Oriako ontziolen loraldia azaltzeko faktore bat baino gehiago aipatu izan dira. Kokapena, esate baterako.

Faktore asko daude bat egiten dutenak. Inguru geografikoa da horietako bat, bai. Ez zen gaur

egun dagoena, noski. Esate baterako, hezegune eta zingira gehiago zeuden garai hartan. Gerora gizakiak tokia jan zion ibaiari, baratzeak landatu edota industriadako lur sail handiak eraikitzeke.

BEÑAT IBAIETA

“1.300 tonako kargako ontziak eraikitzen ziren Mapilen. Beraz, 100dik gora lagun arituko ziren bertan lanean. Eta orduan ez zen elektrizitatetik ezta egungo tresneriarik”

Beste faktorea materiala zen. Lanerako egurra adibidez, eskura zuten. Mutiozabaldarren agirietan jaso geratu denez, basoak ez zituzten nolanahi ustiatzen. Haritzak modu jakin batean behartzen zituzten, gero ontzigintzarako moldatu ahal izateko. Informazio asko dago horren inguruan: nola garraiatzen zuten egurra, noiz eta nola mozten zuten, zertarako erabiltzen zen...

Andatza-Irisasiko zuhaitzak modu jakin batean landatzen zituzten, ontziak eraikitzeke baliagarriak izan zitezkeen?

Hori da. Bitxia dirudien arren,

luzarorako perspektiba zuten. Haritza adibidez, urtean zentimetro bat haziko bada, 40 bat urte pasa beharko dira haritz koxkor bat egiteko. Ez zuten epe laburrean bakarrik pentsatzen, beraien perspektiba luzarorako zen. Ondorengo belaunaldiak ere kontuan izaten zituzten. Ondorengoentzat zur egokiak uzteko joera zutela esan daiteke, mendiaren ustiaketa osasuntsu bat eginez.

Erriorearen ezaugarriak ere zeresana izango zuen ontziolen hedatzean, ala ez?

Ontziola batzuen dimentsioak oso handiak ziren. Mapilekoan adibidez, ia 1.300 tonako kargari eusteko moduko ontziak egin zituzten. Gaztelako erregearentzat fragatak egin zituzten bertan. San Jose izenekoa, besteak beste (irudia 6. orrialdean duzue ikusgai). Erregearen eskariak batez ere Mapilen eraikitzen ziren. Baina merkantzia-ontziak ere egin zituzten bertan.

Mapilekoaz gain, beste ontziola batzuk ere baziren Usurbilen. Aginaga (edo Zakoeta bezala ere ezaguna), Urdaigaga (edo Urdazaga bezala ere ezaguna), Rutarte eta Zubieta.

“Ontziolena mundu mailako industria bat izan zen, izugarritzko garrantzia izan zuena”

NOAUA! Gaur egun, Aginaga eta Usurbil errioreari bizkar emanda bizi dira. Ontziolen garai hura gogora ekarriz, orduko ondarea berreskuratzeko bide bat zabaldu daiteke akaso?

Beñat Ibaieta. Bide bat ez, autopista bat! Begira, Euskal Herriak itsas-historian aipamen berezi bat merezi du. Euskaldunak lehenak izan zi-

ren munduari itzulia ematen, balea-arrantzan Amerikaraino ere iritsi zirela dioten agiriak daude... Hain zabala da Euskal Herrian itsas-ondareari lotutako guztia.

Gaurko egunez, zaila da imaginatzea garai hartan zer nolako gaitasuna zegoen hemen hau dena aurrera eramateko. Ontziolena mundu mailako indus-

tria bat izan zen, izugarritzko garrantzia izan zuena. Berdin balea-arrantzan, Indietako kolonizazio garaian, Amerikaren deskubrimenduan..., Itsas-gerretan ere, Gaztelako erreinuak premiazkoak zituen fragatak Euskal Herrian egiten ziren.

Gaur egun, itsas bilkurak antolatzen dira mundu mailan eta bilkura hauek oso ezagu-

nak dira Europako Iparraldeko herrialdeetan: Herbeheretan, Britainia Handian, Frantzia, Alemanian bertan... Itsas kultura oso zabaldua dago herrialde horietan eta gobernuak laguntza handiak ematen dituzte euren ondarea babesteko. Hemen aldiz, lan handia dugu egiteko oraindik.

“Mutiozabaldarrak Aginagan hasi ziren ontzigintzan”

Orioko Mutiozabal Gipuzkoako ontziola tradizionalen arte gaur arte zutik iraun duen bakarra da. Orioko Udalak erosi eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker zaharberritua izan da.

NOAUA! Mutiozabal abizena ontzioleri lotuta dago. Euren jatorria usurbildarra da, ezta?

Beñat Ibaieta. Orioko ontziola hori (argazkikoa) bigarren fase batean eraiki zuten, hazkunde batean zeudela. Aginagan hasi ziren ontzigintzan eta ondoren zabaldu zuten Orioko ontziola.

Ondare materialaren ikuspegitik, existitzen den plano bilduma onena Mutiozabaldarrena da. Jesus Maria Peronaren lana nabarmendu behar da. Plano asko berak aurkitu zituelako. Eta plano horietako ontzi gehienak Usurbilen eraiki ziren. Material hori Aquarium-en jasota dago eta liburu bat ere bada argitaratua, *Mutiozabal* (Aquarium, 2014) izenekoa.

Mutiozabalen jatorria Mapil-en ondoan zegoen, Uriberriko inguru horretan. Selma Haxley kanadiar ikerlariak euskal baleontzien hainbat aztarna Oñan



“Mutiozabaldarrek 131 urte egin zituzten ontzigintzan Oriai ibaiaren ertzetan: 1798tik 1929ra. Aurrena, Aginagako ontziolan; 1887tik aurrera, berriz, Orioko Arratolako ontziolan eta, 1910etik aurrera, Mutiozabal ontziolan, Arratolan bertan”. Argazkian, Mutiozabal ontziola eraberritua.

BEÑAT IBAIETA

“Ondare materialaren ikuspegitik, existitzen den plano bilduma onena Mutiozabaldarrena da. Eta plano horietako ontzi gehienak Usurbilen eraiki ziren”

tiko artxiboan aurkitu zituen. Bertan jasoa dagoenez, ontziola horietatik oso itsasontzi handiak atera ziren. Ez bakarrik fragatak, baita merkanteak ere.

Zu Beñat, Zumaiako Beduola elkarteko kide zara. Zuek ere

bertako itsas ondarea berreskuratzeko ahaleginean ari zarete, ezta?

Beduola elkarte 2004. urtean sortu zen eta Beduan kokatuta zegoen ontziola babesteko eta balioan jartzeko jaio zen. Eta posible balitz, ontziolatxo bat sortu usadiozko ontziak konpondu edota berriak erakitzeke. Urte hauetan guztietan Zumaiako Udalak lonja bat utzi digu. Tailer moduko bat daukagu bertan, konponketak egin eta ontzi berriak egiteko. Irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara, denak boluntarioak gara. Batelak konpondu eta

uretaratzen ditugu, besteak beste.

Orioko Mutiozabalek edota Pasaiaiko Albalak beste dimentsio bat dute. Azken honetan hogeitaka langile ari dira lanean. Lan ezberdinak egiten ditugu, baina denak ari gara itsas ondarea berreskuratzeko ahaleginean; denak ari gara ekarpen handiak egiten.

Orion Mutiozabal berreskuratu den bezala, Zumaiako Beduola ontziola berreskuratzeko asmotan al zabilzate?

Egitasmoa beti egon da. Beduola elkarte gehien bat Beduola ontziola berreskuratzeko asmoarekin eratu zen, toki horretan bertan tailer bat sortu eta ontziak berreskuratzeko.

XX. mendean Galarraga eta Urbieta enpresa aritu zen bertan lanean. 105 ontzi eraiki zituzten: baxurakoak gehienak, arraste-ontziak ere bai, ibairako ala eta gabarra batzuk... Zementuzko zutoinak eta zementuzko lonja bat mantentzen dira. 2006an egitasmo bat aurkeztu genuen udaletxean eta ordutik ez da berriro saiakera handirik egin. Jabego pribatua dago tar-teko, beraz, ez da erraza.

“Interpretazio zentro bat eraikiko balitz, Usurbilek aisialdi eremu bat irabaziko luke. Gaur egun ez daukana”

NOAUA! Aginagan interpretazio zentro baten moduko zer-bait egin liteke akaso. Bertako ondareari argia eman eta bestelako jarduerak sustatzeko balioko luke, ezta?

Beñat Ibaieta. Hasteko, ontziolen industria balioan jarriko luke. Usurbilgo historiaren eta kulturaren parte dena. Bada esaera bat antzekoa dioena, ezta? “Nondik gatozen

jakitean jakingo dugu nora goazen”. Gure arbasoak nola aritzen ziren lanean ikasteko aukera paregabea eskainiko luke. Horretaz gain, aisialdi eremu berri bat irabaziko luke Usurbilek, gaur egun ez daukana. Ibaiarekin eta Oriorekin adibidez, konexio polita zabaldu daiteke.

Modu jasangarri batean eginenez, osagai interesgarri gehia-

go ere izango lituzke horrelako proiektu batek. Naturarekin harremana sustatuz, adibidez. Gure ontziak oso ontzi xumeak dira, edozein bazterrean hurbildu daitezke arraunekin, inguruko hegaztiak ikusi.... Beti ere errespetuz. Horrelako gune batek balio erantsia emango lioke Usurbilgo herriari. Ibaia lotutako zerbitzu ezberdinak eskaintzeko aukera



Uriberri ontziola Aginagan (Iturria: Donostiako Aquariuma).

izango luke (aisialdia, kirola). Proiektu ederra litzateke.

“Aginagan herri kooperatiba bat sortzeko asmoa dugu”

Urtebeteko lanketaren ostean, herri kooperatiba osatzeko asmoa dutela agertu dute Aginagan. “Gure asmoa herri kooperatiba bat sortzea da”. Hauxe martxoaren 12an Eliza Zaharra Elkargunean egin zuten aurkezpeneko mezu nagusia. “Behar edo desio ditugun proiektu kolektiboak sustatu eta zerbitzuak eskaintzeko herri egitura”.

Bide bat osatu dute eta dagoeneko talde eragile bat lanean dabil. Ostiral arratsalde-
ro biltzen da Eliza Zaharreko elkargunean.

Talde eragilea

Sortu nahi duten herri kooperatiba horren erdigunean kokatu nahi dituzte hain zuzen, aginagarrak; bai maila ezberdinetan sor daitezkeen ekimenetan lagundu edo parte har dezaketen norbanakoak, baita herri eragileak ere. Eta erakunde publikoak; kooperatiba hau ere beharrak plazaratzeko tresna gisa baliatu nahi dute. Osatua dagoen talde eragileak koordinatuko ditulan hauek guztiak.



Martxoaren 12an egitasmoari buruzko xehetasunak eskaini zituzten.

ZERGATIA

“Aginagan dituzten hutsuneei eta gabeziei erantzuteko sortu nahi dute herri kooperatiba”

Tresna

Denetariko egitasmo eta alor-
rak barnebilduko dituen kooperatiba sustatu nahi dute. Hain zuzen, azken urtebetean egindako aurrelanketaren baitan herritarrei eginiko galdeketo emaitzetatik, besteak beste, turismoan, zerbitzuetan, energian, teknologia eta telekomunikazioetan, elikaduran, etxebizitzan edota kulturaren eragiteko asmoa agertu dute. Baita sor daitezkeen gai gehia-

gotan ere. Prozesu honetan zehar, urte hasieran eginiko formazio saioetan ikusi ahal izan dutenez, “kooperatiba tresna polita izan daiteke Aginagan aplikatzeko”. Tresna honen bidez proiektu ezberdinak gauzatzeko.

“Herritarrok gure beharrak asetzeko”

Iazko martxoan hasi ziren Aginagako eragile ezberdinen bueltan dabiltzan herrikeriek biltzen, “Aginagan hutsune eta gabezia batzuk” zeudela ikusita. Horri erantzuteko sortu nahi dute hain zuzen herri kooperatiba.

Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartzea sustatzeko duen

dirulaguntza deialdira aurkeztu, laguntza eskuratu eta lanari ekin zioten. Lehenbizi, udazken partean Aztiker Iker-
gurekoen laguntzaz Aginagak zituen gabezia eta beharren inguruan galdezka aritu ziren. 463 aginagar daude eroldaren arabera, 376 dira 16 urtekoak. Haietatik 136 lagunek parte hartu zuten inkesta horretan. “Nahiko parte hartze altua izan zen”, sustatzaileen esanetan. Etxebizitzan, hirigintzan, kale giroan, zerbitzuetan orohar dauden gabeziak identifikatu zituzten. Hortik aurrera, kooperatibak sortzen aritzen den OlatuKoop kooperatibaren laguntza jaso dute.

Bi formazio saio

Abenduan emaitzak aurkeztuta, urte hasiera honetan bi formazio saio egin dituzte, “taldea zabaldu eta gaiak jorratzen hasteko”. Lehenengoan, kooperatibak eskaini ditzakeen aukerak aztertzeke eta bigarrean, herritarren boteretzeaz aritu ziren, “herritarrok geuk gure beharrak asetzeko”. Horretarako, “Aginagan nola gauden antolatua ikusten hasi ginen”.

“Erosketak egiteko denda bat falta da”

Mugarri garrantzitsuenak

■ 2022/3: talde motorra osatu eta Foru Aldundiaren dirulaguntza eskuratu zuten.

■ 2022/11: hausnarketa eta galdetegia herritarrekin.

■ 2022/12: galdetegiko emaitzen aurkezpena.

■ 2023/1-2: bi formakuntza tailer ireki. Urtarrilaren 19koan, kooperatibismoa eta proiektu aukerak aztertu zituzten. Otsailaren 2koan herritarren boteretzeaz jardun zuten.

Arazo kolektibo garrantzitsuenak

1-Erosketak egiteko denda

falta.

2-Zerbitzu falta orokorrean.

3-Etxebizitza falta, jende gaztea erakartzeko eta bertakoak bertan geratzeko.

4-Garraio publiko eskasa, komunikazio falta (ordutegi murrizak, autoarekiko menpekotasuna...).

5-Kale giroa falta da, auzo bizitza gutxi dago.

6-N634 errepidea, trafiko handia, arriskua.

7-Urbanistikoki ez dagoela planifikaziorik, dena sakabanatuta eraiki dela eta lotura txukunik gabe.

8-Kaleak eta espaloiak konpon-

du behar dira.

9-Inguruko udalerrietara mugitu beharra edozein gauza egiteko (erosketak, kanpoko jarduerak...).

10-Kutzazain automatiko falta.

Arazo pertsonalak

1-Biztanle kopurua gutxitzen, despopulazioa eta zahartzea.

2-N 634 errepidea, trafiko handia, arriskua.

3-Kaleak eta espaloiak konpondu behar dira.

4-Zerbitzuak falta dira, orokorrean.

5-Aginaga hiltzen ikustea, herri bizitzaren gainbehera.

6-Garraio publiko eskasa, komunikazio falta (ordutegi murrizak, autoarekiko menpekotasuna).

7-Etxebizitza falta, jende gaztea erakartzeko eta bertakoak bertan geratzeko.

Sustatzaileak:

Antxomolantxa elkarteak, San Praixku guraso elkarteak eta Aginagako Eliza Zaharra elkargunea, eragileon bueltan dabiltzan norbanakoak.

Laguntzaileak:

Aztiker eta OlatuKoop. Dirulaguntza: Foru Aldundia

Birziklatutako materialarekin ere musika ederra egin daiteke



Orquesta Reusonicakoez goizean tailer bat gidatu zuten Zumarte Musika Eskolaren atarian eta arratsaldean kontzertua eskaini zuten frontoian.

19. Soinurbil zikloaren baitan, Orquesta Reusonica izan zen aurreko larunbateko protagonista.

Goizean, dozena bat umeekin tailer berezi bat egin zuten soinuarekin lan egiteko. Ahotsa eta egunerokoan erabiltzen ditugun objektuak

instrumentu bihurtuta, jolasean aritzeko tarteak izan zuten.

Arratsaldean, kontzertua eskaini zuen Orquesta Reusonica hirukoteak frontoian berrerabilitako materialarekin egindako instrumentuak erabili.

Kalezarko bazterrak ezagutzen



Argazkikoez 'Gure bazterrak ezagutzen' ibilaldian hartu zuten parte.

'Gure bazterrak ezagutzen' ekimenaren bigarren ibilaldia osatu zuten aurreko igandean. Argazkian ageri direnek ibilbide polit bat egin zuten Kalezarren barna.

Iparorratza erabiltzen ikasi zuten txikiek, mendian orientatzen eta belar zein loreak identifikatzen. Eta nola ez, Kalezar inguruko bideak ezagutu zituzten.



ONGI-ZATEA.

INGURUMENA.

Hauek dira Gipuzkoarako eraikitzen ari garen etorkizunerako oinarriak. Gure ekonomia indartzeko, pertsonak babesteko eta gure ingurumena zaintzeko lanean ari gara. Gure etorkizuna orain hasten delako.

Etorkizuna Orain.

etorkizunaeraikiz.eus

“Txokoargiko erakusketan jarri ditudanak urritik hona egindako margolanak dira”

Nerea Zinkunegik pintura erakusketa zabaldu du Txokoaldeko Txokoargin, martxoaren amaierara arte. Azken hilabeteetan egin duen lanaren berri eman digu eta, bide batez, proiektuan laguntzeagatik eskerrak eman nahi dizkie Felixu Lorenzo, Nagore Leoz, Irati Migel, Placeres Lorenzo eta Eli Udaberi.

NOAUA! Erakusketa zabaldu berri duzu Txokoargin. Noiz arte egongo da bertan?

Nerea Zinkunegi: Martxoaren 31 bitartean egongo da ikusgai. Astelehenetik ostiralera egongo da zabalik goizeko 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, astearteetan izan ezik; yoga klasea izaten baita arratsaldean.

Erakusketa nola definituko zenuke?

Pintura erakusketa bat da. Margotzen hasi nintzen ekaina erdialdean psikologoak hala gomendatu zidalako eta pixkanaka gustua hartu nion lanari. Erakusketan jarri ditudanak urritik hona egindako lanak dira. Ez ditut lanak ordena jakin batekin egiten, posible da



“Batzuetan hiru koadro batera hasten ditut kolore berarekin, baina gero kolore aukeraketa ezberdinak egiten ditut eta horrela osatzen ditut pixkanaka koadroak”.

NEREA ZINKUNEGI

“Psikologoak hala gomendatu zidalako hasi nintzen margotzen eta pixkanaka gustua hartu nion lanari”

batzuetan sei pintura batera egiten aritzea ere. Bat lehortu bitartean beste bat hasten dut eta ondoren, gorputzak zerbait

ezberdina eskatzen badit, berri bat hasten dut. Batzuk asko kostatzen zait bukatutzat ematea eta beste batzuk berriz segituan ikusi dut amaituta daudela. Batzuetan bukatutzat ematen dut koadro bat, baina hurrengo egunean begira jarri eta zerbait falta zaiola iruditzen zait edo zerbait sobera duela.

Idea argi batekin hasten zara

koadroak pintatzen edo zeure buruari nahi duen bezala espresatzen uzten diozu?

Pintatzen hasten naiz pinta-tzeagatik. Papera zikintzen hasten naiz kolore batekin eta ea zer ateratzen den. Batzuetan hiru koadro batera hasten ditut kolore berarekin, baina gero kolore aukeraketa ezberdinak egiten ditut eta horrela osatzen ditut pixkanaka koadroak.

“Koadro guztiak ‘gouche’ teknikarekin margotuta daude”

NOAUA! Teknika mistoa erabili duzu koadro guztietan?

Nerea Zinkunegi: Koadro guztiak gouche teknikarekin margotuta daude. Pintura mota bat da urarekin nahastu beharrekoa. Arkatz margoa ere sartu diet pintura guztiei, eta hori beste teknika bat denez, koadro guztiak teknika mistoz eginda daude. Beti gouche-arekin hasten naiz beti eta gero, arkatz margoekin pintatzen dut. Batzuetan ondoren gaine-

tik gouche-arekin ematen diot eta azpikoa berritzen dut. Ez dauka ordena jakinik.

Salgai dauden koadroak dira, ezta?

Bai, batzuk jada salduta daude edota oparitarako emango dizkiet lagunei. Apirila eta maiatzean Bilboko Bizitza tabernan erakusketa bat jartzekoa naiz, eta beraz, erakusketa honetatik koadroren bat badaukat bertan jarriko dut. Sormen lan be-

riak ere egin ditut eta Bilboko erakusketa horretarako lanean ari naiz orain. Ez da oso taberna handia, baina bi hilabeteko lana izango denez, aukera batzuk izan nahi ditut.

Pinturaz gain, bestelako arte plastikoekin ari zara?

Astelehenetan zeramika egitera joaten naiz eta oso gustura nabil. Han beste mota bateko proiektuekin ari naiz lanean. Txokoargirako logotipoa egin

nahian gabiltza bertan. Uholdeek ekarritako leiho batean jarri nahi dugu zermikaz eginitako logotipoa. Azken uholdeen ondorioz, leiho bat ekarri zuen urak Txokoaldera. Oso leiho zaharra da eta ez dakigu oso ondo nondik atera den edo noizkoa den. Oso-osorik dago, baina lau zulo ditu eta horiek bete nahi ditugu zermikarekin. Txokoargiko kanpoko horman jarri nahi dugu behin amaitu ostean.

Nerea Zinkunegi: “Gaitasunak denok ditugu”

NOAUA! Udarregi Ikastolako plastikako irakaslea zara urte luzez. Orain arte geroz eta serioago hartzen dela esango zenuke?

Nerea Zinkunegi: Nik uste dut oso kontu kulturala dela, hau da, ez dela ikasleek daukaten sentsazio bat bakarrik. Etxean ere askotan arlo hauei ez zaie garrantzarik ematen. Guraso eta ikasleek ez dute berdin sentitzen plastika edo matematika ez gainditzea. Kasuak kasu, baina guraso gehienek pisu gehiago emango diote matematikako suspentsoari, plastikakoari, musikakoari edo etikakoari baino. Aipa ditudan hiru arlo hauek niretzat pisu berezia duten alorrak dira. Gizartean edo kulturaren ez dute pisu hori, eta hori horrela zen gure garaian eta horrela izaten jarraitzen du gehiengoarentzat. Guraso batzuk badaude Arte Ederrak ikasitakoak edo ikasleak horretan ikusten direnak, baina gutxiengoa da.



“Hezkuntzan urte dezente badira aukerako arlo ugari eskaintzen: ikus-entzunezkoa, antzerkia... Udarregin urte asko daramatzagu eskaintza horiek egiten”.

Hezkuntzan ere garrantzi falta hori nabari dela uste duzu instituzioen aldetik?

Hezkuntzan urte dezente badira aukerako arlo ugari eskaintzen: ikus-entzunezkoa, antzerkia... Udarregin urte asko daramatzagu eskaintza horiek egiten. Aukerakoak dira eta horrek nolabait pisua kentzen die. Ez dut uste pisurik ez duten arloak dire-

NEREA ZINKUNEGI

“Kasuak eta kasuak daude, baina guraso gehienek pisu gehiago emango diote matematikako suspentsoari, plastikakoari edo musikakoari baino”

nik, ematen ez zaielako dira horrela eta ezer egin ezean

horrela jarraituko dute. Suspentso batengatik guraso edo ikaslerik ez zait behin ere kontu eske etorri; ezin dute hori esan, ordea, matematikako irakasleak, naturakoak edota gizartekoak, adibidez. Nik iskanbilarik ez dut izaten notei dagokienean.

Nola saiatzen zara transmititzen arteari diozun maitasun hori?

Gaitasunak denok ditugu, batzuk gehiago izango dituzte arlo batzuetarako eta besteek beste batzuetarako. Pasioa transmititzea ez da erraza, irakaskuntzan ere nota bat jartzera behartuta gaudelako eta programazio bat bete beharra daukagulako. Zorionez, arlo hauek badute askatasun gehiago programazio propio bat sortzeko minimo batzuk kontuan hartuta. Material oso egokia dago gaur egun arlo hauek lantzeko.

Ikastoletako Ekhi proiektuan lanean diharduten pertsona horiek ere, izugarriko lana egiten ari dira material berria moldatzeko. Ikasleek beste arlo gehienetan bezala Chromebookarekin lan egiten dute, ariketa batzuk prestatuta daude... Diseinurako programa ederrak daude. Eskuz ere lan egiten dugu marrazketa edo dena delakoa lantzeko.

DBH4n sentimenduen kaxa dauka ikasle bakoitzak eta lan bat egin behar du idatziz ondo hausnartuta, eta ondoren, kaxa hori plastikoki landu behar du ideia hori ondo plasmatzeko. Gero, denei erakusten diete egin duten lana eta azaldu egiten diete beraien kaxa zergatik den horrelakoa. Ikasle batzuentzat oso interesgarria da, baina beste batzuentzat ez. Hori arlo gutzietan bezala.

“Gozatzen ari naiz pinturarekin”

NOAUA! Arte Ederrak ikasi nahi dituzten ikasleak ere izango dituzu noizbehinka.

Nerea Zinkunegi: Bai, badituzten ikasketa horiek egin dituzten ikasle ohiak eta gaur egun ere badaude ikasleak arteak erakartzen dituenak. Nik ere ikasketa horiek egin nahi nintuela esan nienean gurasoei

harritu egin ziren, baina asko lagundu zidaten. Ikasketa garestiak dira batetik Leioako Campusean dagoelako, eta beraz, hara joan behar izan nuelako bizitzera. Eta bestetik, materiala erosi behar da lan egin ahal izateko. Gurasoentzat esfortzu handia suposatzen, baina babes guztia eman

zidaten.

Ikasketak amaitu eta berehala hasi zinen Udarregi Ikastolan lanean?

Ikasketak amaitu eta hurrengo urtean Udarregin hasi nintzen lanean eta bertan daramatzat 25 urte. Bitarte horretan pintatu gabe egon naiz. Irakasle la-

nez gain, bestelako lanak eta ardurak ere izan ditut ikastolan eta pintatzea erabat apartakuta neukan. Pintatzeko beste patxada bat behar da. Bolada luzea daramat banan eta pintatzea oso ondo etortzen zait. Oso gustura nabil eta benetan gozatzen ari naiz pinturarekin.



G15 GIPUZKODA
HIGIEZINA
ELKARTEA



PISUA SALGAI

Igogailua, fatxada bentilatua,
3 gela, 2 komun eta Garajearekin.

688 739 733

Etxebeste Kalea 15, USURBIL info@g15usurbil.eus

noaúa

jarraitu gure sare sozialak

facebook

Instagram

twitter

noaúa

www.noaúa.eus



NOAUA!k UDALEKU IREKIETAN aritzeko HEZITZAILE eta ZUZENDARI lan poltsa DEIALDIA

LEHENETSIKO DA:

- Begirale
- edo zuzendari titulua izatea
- EGA izatea
- Usurbildarra izatea

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaúa! Kultur Elkarte

Bordaberri 3, Usurbil edo

elkartea@noaúa.eus

- Sexu delituen ziurtagiri eguneratua bidali

Curriculum-arekin batera

bidaltzeko azken eguna: apirilak 20

noaúa



Peña Alegriako kideak: “Apirilaren 1ean gonbidatuak zaudete gurekin elkartzera”

Iazko egun gogoangarriaren ostean, herri giroa gogotik piztera bueltan datoz lerrotako protagonistak. Apirilaren 1ean gure artean izango ditugu berriz, Iruñeko San Ferminetan festarako gogoia sustatzen aritzen den Peña Alegriako kideak, txaranga eta guzti. Haien parranda giroarekin bat egitera animatu gaitu bilguneko kide Goizeder Biurruneak.

NOAUA! Nola aurkeztu zenezake Peña Alegria?

Goizeder Biurrun: Ez da soilik San Ferminetako bilgune bat, ente sozial bat gara baita. Hainbat ekintza antolatzen ditugu urtean zehar: mendi irteerak, hitzaldiak, Euskal Astea, sagardotegiko irteera, eta beste hainbat ekimen.

San Ferminei soilik ez beraz, Iruñea hiriarri ere oso lotuak zaudete.

Egoitza Jarauta kalean dugu. Kale horretan badaude beste peña batzuk. San Ferminetan beste halako bilguneen antzera, erreferente bat gara. Azken finean, San Ferminetan peña guztiak erreferenteak dira.

Zer lirateke Iruñeko jaiak zue- na bezalako talderik gabe?

Ez dakit, ez dugu inoiz ikusi. Une hori inoiz ez heltzea espero dugu.



Iaz bezala, aurten ere Usurbilen izango da Iruñeko Peña Alegria, San Ferminetako txaranga eta bilgune ezaguna.

PEÑA ALEGRIA

**“Apirilaren 1ean
pankartarekin joango
gara Usurbilera.
Hori ez da faltako,
ezta txaranga ere”**

Aurtengoari begira, prestaketa lanetan ariko zarete?

Bai. Batzordearen bilera dugu laster eta San Ferminak prestatzen hasiko gara. Lan asko dago egiteke.

Zein da zuen urteko dinamika?

San Ferminetan, adibidez, Bazkide Eguna antolatzen dugu. Aurten ez dakit oraindik zer

egunetan egingo dugun. Gero, urtean zehar, lehen aipatutako ekintza ezberdinak egiten ditugu. Beti lanean gaude.

70 urte bete dituzue. Ospatu ulduze urtemuga?

Iruñeko sagardotegi batean ospatu genuen bazkide gehienekin, bazkari on batekin. Gero txarangarekin Iruñea aldetik bueltatzea eman genuen, beti bezala giro ezinhobean, musikaz girotua.

Iruñetik kanpo ere ibiltzen zarete. Iaz, Usurbilen izan zineten bisitan lehen aldiz. Nolatan sortu zen hona etortzeko aukera?

Txotx denboraldian jendea beti

Hernani eta Astigarragara joaten da. Herriotako bizilagunek larunbatero jende mordo batekin bizi behar zuten txarangekin. Ikusi genuen ez zela eroso bertan egotea. Beste norabait joatea erabaki eta Usurbil aukeratu genuen. Bete-betean asmatu genuen, herriko jendeak oso harrera ona egin zigun. Aurten esperientzia errepikatuko dugu.

Apirilaren 1ean etorriko zarete. Zer plan duzue egun horretan?

Oraindik ez dugu guztiz zehaztu zer egingo dugun, baina iazkoaren antzekoa izango da. Bueltatxo bat emango dugu Igandea izeneko Iruñeko txaranga gaztearekin, bermuta hartuko dugu eta gero bazkaltzera joango gara Usurbilgo sagardotegi batera. Arratsaldean herrira itzuli eta txarangarekin eta jendearekin bueltatzea emango dugu giro paregabe.

Pankarta eta guzti zatozte?

Bai, apirilaren 1ean pankartarekin joango gara Usurbilera. Hori ez da faltako, ezta txaranga ere.

Usurbildarrok zuekin parranda giroan murgildu ahalko dugu?

Arazorik gabe, gu pozik gainera. Gonbidatuak zaudete gurekin elkartzera.

Ziortzaren kanpaldirako aurre izen-ematea zabalik

“Aurre izen-emateak kalkulu bat egiteko soilik balio du, ez da izen-emate ofiziala”, ohartarazi du Ziortzak. Apirilaren 2ra arteko tartea izango dute interesdunek urrats hau egoki emateko. Ezinbestekoa izango da, gero izen-emateko. “Izen-emate ofiziala, soilik, au-

rre izen-emateko galdetgia bete dutenek egin ahal izango dute”, ohartarazi dute Ziortzatik.

Ziortzaren udako kanpaldia

■ Noiz:

-Uztailak 5-14: DBH 3-4.
-Uztailak 14-21: DBH 2.
-Uztailak 21-28: DBH 1.

■ Aurre izen-emateko epea:

Martxoak 20-apirilak 2.

■ Aurre izen-emateko esteka:

<https://labur.eus/HP5E2>

■ Oharra: plaza kopuru mugatua.

■ Antolatzailea: Ziortza.

■ Laguntzaileak: Udala, Foru Aldundia.



<https://labur.eus/HP5E2> helbidean topatuko duzue formularioa.

Xabier Otxoa izango da EAJ-PNV alderdiko alkategaia datozen udal hauteskundeetan

Usurbilgo EAJren udal batzarrak Xabier Otxoa Muñoz hautatu du datozen udal hauteskundeetarako zerrendaburu gisa. Aretxabale-takoa da jaiotzez, 31 urte ditu eta Usurbilen bizi da gaur egun. Alderdiaren eta militantziaren babesarekin, Otxoa izango da “Usurbilgo herritarrei aukera berriak” eman nahi dizkion apustuaren buru, “ilusioz eta proiektu sendoekin, etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko prest”.

Xabier Otxoa hautagaiak “ilusioz eta lanerako gogo handiz” onartu du izendapena, eta helburu bat finkatu du: “Usurbil aurrera eramateko erabakitazunez lan egitea, proiektu eta plan guztiak errealitate bilaka daitezten”. Horretarako, “lidergo argia, kudeaketa talde bat eta EAJ-PNVren indarra” behar direla gaineratu du.

EAJ: “Lanerako gaitasun handia du”

EAJk prentsa-ohar bidez jakinarazi zuen aurreko astean Otxoaren hautagaitza. Zerrendaburu berriaren prestakuntza, esperientzia eta ilusioa nabarmendu ditu eta, bereziki, “bere lanerako gaitasun handia”. Bere ekarpena erabakigarria izan daitekeela dio alderdi jeltzaleak, “Usurbil berpizteko garrantzia handi-



Xabier Otxoak hortaz, Josune Urkola azken legealdietako zerrendaburuaren tokia beteko du.

XABIER OTXOA MUÑOZ

“Usurbilek gidaritzza berri bat behar du, Usurbilen jaiotakoak zein kanpotik etorritako usurbildarrak gidatzeko aintzat hartzen dituen proiektu bat”

ko une honetan”.

Xabier Otxoa: “Usurbilek gidaritzza berri bat behar du”

Usurbilera etorritako gazteak

dio bere bizitza proiektua Usurbilen hasi berri duela eta bera bezala, hainbat direla bertara etorri diren gazteak. “Horregatik behar du Usurbilek gidaritzza berri bat, Usurbilen jaiotakoak zein kanpotik etorritako usurbildarrak gidatzeko aintzat hartzen dituen proiektu bat”, dio Otxoak.

Ingenieria, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea

Hautagai jeltzalea, ubide eta portuetako ingeniaria da, hi-

rigintzan espezializatua, eta lanbide horretan ingeniari-tza enpresa batean eman ditu azken urteak bazkide bezala. Orain enpresen administrazio eta zuzendaritza master exekutiboan egiten ari da. “Gizarte-bizitzan eta alderdian inplikaturako pertsona, Xabier Otxoak konpromiso hori urrunago eraman nahi du”, dio EAJk, “kudeaketa pribatuan zein publikoan egin duen ibilbidean lortutako esperientzia eta berrikuntzarako gaitasuna eskainiz”.

Xabier Otxoa Aretxabale-tako udaleko zinegotzi eta hirigintza buru izan da azken legealdian. Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea ere bada. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa, Bide Azpiegiturak eta Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako batzordeetan lanean dihardu legealdi honetan.

Taldea berritzeko borondatea

EAJk bere agirian dioenez, “abertzale eta euskaltzale honen ilusio handiz eta erantzukizunaren zentzu handiz hartu du izendapena”. Otxoak bestetik, eskerrak eman dizkie alderdiari eta berarengan konfiantza jarri duten pertsona guztiei. Taldea berritzeko borondatea azaldu du, “ideia eta ilusio berriak ekarriko dituzten pertsona berriak inplikaturaz”.

PSE-EE alderdiak ez du alkategaiaren izena argitu

Azken udal hauteskundeetan, EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiak izan ziren udal ordezkariak lortu zuten bakarrak. Lehen biek dagoeneko iragarri dituzte 2023-2027 legealdirako zerrendaburuaren izenak. PSE-EE alderdiak ordea, oraindik ez du argitu nork gidatuko duen alderdi sozialistaren hautagaitza.

Laster amaituko da udal zerrendak aurkezteko epea eta, gutxi asko, denak ari dira horretan: 13ko zerrenda osatu nahian. Bien bitartean, hautagai nagusi batzuen izenak dagoeneko eman dira ezagutzera. EH Bilduk duela lau urteko hautagai berbera aurkeztuko du. EAJ-PNVk aldiz, aurpegi berri-

baten aldeko apustua egin du.

Hortaz, udaletxean ordezkariak dauden alderdien artean, PSE-EE da alkategaiaren izena aurreratu ez duen bakarra. Patxi Suarez egungo zinegotziarekin harremanetan jarri gara eta oraindik ez daki zein izango den alderdi sozialistaren hautagaia. Jakin bezain pronto jaki-

naraziko digula ziurtatu digu. Laster argituko da.

Beste alderdiek zer egingo duten ikuskizun dago

2019an beste bi zerrenda aurkeztu ziren Usurbilen. Pascual Plaza PPko hautagaia izan zen eta Luis Maria Ormaetxea Aulki Zuriak (EB) zerrendarena.

Agurtzane Solaberrieta: “Pasio eta bokazio publiko berarekin heltzen diot konpromiso berri honi”

Egungo alkate eta maia-tzaren 28ko udal hauteskundeetarako EHBilduren zerrendaburu Agurtzane Solaberrieta Mesak halaxe adierazi zuen iragan larunbatean egin zen aurkezpen ekitaldian: “Pasio, konpromiso eta bokazio publikoarekin jardun dugu lau urteotan eta asmo berarekin heltzen diot erronka eta konpromiso berri honi”.

Berarekin izan zen baita, maiatzeko azken igande horretan egingo diren foru hauteskundeetarako koalizioak hautatu duen zerrendaburu Maddalen Iriarte Okiñena.

Bost lan-ildo

EHBilduko kideei eskerrak helaraziz hasi zuen alkategaiak bere hitzaldia, etxekoen eta lagunengandik jasotako babesa gorai patuz. Gogoan izan eta eskertu nahi izan zituen baita lau urteotan lankide izan dituenak. Datorren legealdian, azken lau urteotan “herri erronka estrategikoei aurre egiteko” martxan jarritako egitasmoetan sakontzea izango dutela helburu aurreratu zuen. Bost lan-ildo nabarmendu zituen. Batetik, “herri justuago eta berdinzaleagoa” nahi dutela aldarrikatu zuen Solaberrietak, ingurumenaren zaintza lehenetsiko duen herri jasangarria. “Euskara, kultura eta gure herri identitatea ardatz izango duen tokiko ekonomia sustatu nahi dugu”, gaineratu



EHBilduk udal hauteskundeetarako zerrendaburua aurkeztu zuen aurreko larunbatean, Mikel Laboa plazan.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Talderik onena osatuko dugu. Jakintza, ilusioa, gaztetasuna, freskotasuna, herrigintza, gertutasuna, eskarmentua eta indarra ziurtatuak ditugu”

zuen. Zaintzen duen herrian eta gobernantza demokratikoan ere sakondu nahi dutela aurreratu zuen. Horri guztiari “zuzendutako politikak indartzera goaz”.

Alkatearen esanetan, “ez da gutxi egin duguna eta asko da oraindik egiteke duguna”. Hala islatuko du EHBilduren tzat iparrorratza izango den herri programak, baita egitasmo guztiok garatzeko osatzen ari diren taldeak ere. “Talderik onena osatuko dugu. Jakintza, ilusioa, gaztetasuna, freskota-

sun, herrigintza, gertutasuna, eskarmentua eta indarra ziurtatuak ditugu. Hain zuzen, horiek dira EHBilduren osagaiak, balioak eta horiek ere Udalera eramango ditugu berri.”

“Usurbilek behar duen alkatea zara”

Solaberrietak Usurbilgo EHBilduren babes osoa du. “Hautagai bikaina zara Agurtzane. Usurbilek behar duen alkatea zara. Milesker beste behin ere konpromiso kolektiboa lehenetsi eta aurrera urratsa egin duzulako”, adierazi zioten herri mailako koaliziotik.

Egungo alkatearen aldeko apustua berretsi dute, “legegintzaldi honi jarraipena eta koherentzia emateko, kudeaketa gaitasun itzela delako, abian dauden proiektuen bilakaera egokia ziurtatu eta garatzeko pertsona ezinhobea delako. Indarrean dagoen lege-

gintzaldian martxan jarri diren proiektuek gure komunitatean izan duten onespren maila altuagatik. EHBilduren ildo nagusiekin zeharo lerrokatutako udal politikak sortu, diseinatu eta aurrera eramateko gaitasuna duelako. Egun, herrian ditugun proiektu askok bere sinadura daramate. Bere bultzada eta konpromisoari esker egin dute aurrera, eta gainera, proiektu eraldatzaile eta inspiratzaileak dira askorentzat”.

Maddalen Iriarte: “Txundituta nago”

“Plazerra eta pribilejioa da bide hau zurekin partekatzea”, adierazi zion EHBilduren alkategaiari, datozen foru hauteskundeetarako EHBilduren Gipuzkoako zerrendaburu Maddalen Iriarte Okiñenak. Herrialde mailan, EHBildu udal gobernuetan egiten ari den lana gorai patu zuen; besteak beste, Usurbilgo Udalean. “Txirikorda edo Matia Fundazioarekin egiten ari zareten elkarlana sakonago ezagutzeko aukera izan dut. Gaur usurbildar izan nahi nuke, bihotz-bihotzez esaten dizuet. Txundituta nago”, adierazi zuen sortzez amona usurbildarra zuen Iriartek.

Zaintza gaiez gain, gazteak hartu zituen ahotan. “Asko larritzen nau gazteek gaur egun bizi duten egoera. Ez dute bizi proiekturik egiteko ere”. Herri hau berrindustrializatzeko beharra ere nabarmendu zuen.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
· eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


JUANXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008


Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Haritz Arruti: “Umetan ez nuen inoiz esan heldutan sukaldari izan nahi nuenik”

Aitzaga Elkarteak gastronomía ikastaro bat antolatatu du martxoan. Haritz Arruti herritarra dabil irakasle lanetan hamabi ikasleri sukaldarako duen pasioa eta ezagutza transmititzeko. Sukaldariarekin izan da NOAUA! ikastaroaren eta sukalde kontuen nondik norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Gastronomía ikastaro bat ematen ari zara martxoan. Zer egiten duzue?

Haritz Arruti: Ni ari naiz sukaldako erabaki guztiak hartzen: zer prestatu, nola prestatu... Aitzaga Elkarteak antolatatu duen egitasmo bat da eta irakasle lanetan aritzea proposatu zidaten. Pandemia garaian eta ondorengo hilabeteetan elkartea erdi hilda egon da, eta beraz, elkartea berriz ere martxan jarri eta jendea hurbiltzeko ekintzak antolatzea erabaki dute. Janaria prestatzen ez dakitenentzat oso interesgarria izan daiteke ikastaro hau, behin amaituta ikasitako platerak kuadrillakoei eta senitartekoei egiteko elkarre giroan. Hori ikusita, plater sinpleak egitea bururatu zait, edonork egiteko modukoak, baina aldi berean erakargarriak.

Sukaldeak neurri konkretu ba-



Haritz Arruti Elketa jatetzeko sukaldaria da. Martxoko ostegunetan sukaldaritzako ikastaro bat eskainiko du Aitzaga elkarteak.

HARITZ ARRUTI

“Janaria prestatzen ez dakitenentzat oso interesgarria izan daiteke ikastaro hau: Behin amaituta, ikasitako platerak kuadrillakoei eta senitartekoei egiteko, elkarre giroan”

tzuk izango ditu eta tresneria ere mugatua izango da, ezta?

Horregatik, 12 pertsonentzat pentsaturiko ikastaroa antolatuko dugu.

Hiruko lau talde txikitik banatuta, lau errezeta ezberdin proposatu dizkiet gai berdintsuekin. Lehen saioan bexamelak prestatu genituen. Mila modutako bexamelak egin daitezke, eta nik lau proposamen egin nizkien. Gainera, bexamel hauek ez dira lasaña edo kroketentzat bakarrik erabiltzen, askoz ere errezeta eta jaki ge-

hiagorekin egin daitezke: piper beteak, krepak, hostorea... Horrez gain, gainontzeko saioetarako ideiak ere prest dauzkat.

Arraina, adibidez, jende gutxi animatzen da prestatzera. Errazak eta sinpleak, erakargarriak eta gustagarriak izan daitezkeen arrainak ere ikasiko ditugu prestatzen: txipirotintan, bakailoa ajoarriero erara, legatza saltsa berdean... Gisa honetako platerak prestatuko ditugu.

“Urte batzuk daramatzat sukaldean lanean eta oso pozik nago hartu nuen erabakiarekin”

NOAUA! Ikasleak sukaldean behin ere sartu gabekoak dira edo ondo moldatzen al dira?

Haritz Arruti: Nik uste denez dagoela. Hasiera batean denek esaten dute ideiarik ez daukatela, baina herri bazkarietan edota elkarteetan sukaldean sartuta ikusi ditut batzuk eta badakit zerbait

badakitela. Batzuek errezeta berriak ikasi nahi dituzte eta beste batzuentzat ezagutuko dituzten lehen errezetak dira.

Nondik datorkizu sukaldaritzarako joera?

Ez nuke esango bokaziozko zerbait dudarik. Umetan ez nuen inoiz esan heldua nin-

tzenean sukaldari izan nahi nuenik. Hasiera batean ikasketak aukeratzekoan ideia batzuk neuzkan eta baztertuz joan ahala sukaldaritzarekin egin nuen topo. Arlo askotan ez nuen neure burua irudikatzen eta sukaldean, aldiz, bai. Lan polita iruditzen zitzaidan eta lanera gustura joango

nintzena. Orain urte batzuk badaramatzat sukaldean lanean eta oso pozik nago erabakiarekin. Janaria mimosoz prestatzen dut eta gozoa egiten saiatzen naiz, baina hala ez bada ateratzen min egiten dit. Ez dakit horri bokazio dei diezaioket, baina hala da.

“Karlos Argiñanoren eskolan ikasi nuen”

NOAUA! Txikitan ez zinen sukaldean batere aritzen orduan?

Haritz Arruti: Etxean laguntzen nien gurasoei zerbait prestatu behar bazuten, eta zer ikasi erabakitzerakoan ere kontuan izan nuen betidanik eroso aritu naizela sukaldean. Ilusioz aritzen nintzen.

Non egin zenituen ikasketak?

Zarauzko Aialan egin nituen ikasketak, Karlos Argiñanoren eskolan. Bertan, Manu Piñeiro usurbildarra dabil irakasle eta oso gustora aritu nintzen. Erdi mailako ikasketak dira, bi urtez egiten direnak. Azken sei hilabeteetan praktikak egin behar izaten dira eta nik Akelarre jatetxean egin nituen. Urtebeteko praktikaldia proposatu zidaten Igeldoko hiru izar Michelineko jatetxean. Ikasteko



“Akelarre jatetxean praktikaldia amaitu eta berehala Elketatik deitu ninduten lanean hasteko”. Argazkian, Aitzagako ikastaroko partaideekin solasean.

ZARAUZTEN IKASIA

“Manu Piñeiro eskolako irakasleetako bat da eta oso gustura aritu nintzen berarekin”

gogoz nongoen, gaztea nintzen eta curriculumean jartzeko ere

aukera bikaina iruditu zitzaidan. Urtebete egin nuen han eta ondoren, Elketatik deitu nintzen lanean eta bertan dihardut. Zorionez ez naiz behin ere langabezian egon. Akelarreko praktikaldia amaitu eta berehala Elketatik deitu zidaten lanean hasteko. Elketan sei

urte eta erdi daramatzat jada.

Aitzagan eskaintzen ari zaren ikastaroa emango duzun lehenengo al da?

Bai, erabat esperimentalak da niretzat. Ikastaroan parte hartzen ari direnei lehen momentuan esan nien nire esperientzia labur honetatik erakutsiko nizkiela trikimailu txikiak eta zalantzak ere argituko nizkiela.

Sukaldeari buruz pentsatzean, lehen eta bigarren platera datorzkgu burura, baina postrea ere oso garrantzitsua da askorentzat. Postreak egiten ere ikasiko al duzue?

Postreak ia denoi gustatzen zaizkigu. Beraz, ikastaroko azken saioan postre batzuk egingo ditugu: brownieak, arroz-esnea, sagar-tarta...

Aginaga Winter Series-eko finalak apirilaren 1ean jokatuko dira

Antolakuntzatik aditzera eman dutenez, astebetetzatzeratu dira finalak. “Apirilaren 1ean jokatuko dira, larunbat arratsaldean, egingo den festa txiki batekin batera”.

3. Jardunaldia, emaitzak

Martxoak 13, astelehena:

Jon Iartza-Pedro Labaien 15
Alazne-Iban 16

Martxoak 15, asteazkena:

Agirretxe-Lorenzo 16
Oskar-Murua 8

Martxoak 18, larunbata:

Zumeta-Galarraga 16
A. Aranguren-A. Munilla 1

Inaxio-Dolo Errasti 16
Leire-Ane 1

Inaxio-Dolo Errasti 2
Jokin-Enrike 16

Leire-Ane 2
Beñat-Andoni 16

Albaro-Haitz 4
J. Arruti-A. Arruti 16

3. Jardunaldia, sailkapenak

P. - Izenak - Pu - I - TA - TK - TD *

A taldea:

1.-Jokin-Enrike 6-3-48-14- +34
2.-Beñat-Andoni 5-2-39-24- +15
3.- Inaxio-Dolo Errasti 4-1-24-33--9
4.- Leire-Ane 3-0-8-48--40

B taldea:

1.- Zumeta-Galarraga 6-3-48-4- +44
2.- Alazne-Iban 5-2-34-41--7
3.- J. Iartza-P. Labaien 4-1-32-43--11
4.- Axi Aranguren-Amaia Munilla 3-0-22-48--26

D taldea:

1.- Agirretxe-Lorenzo 6-3-48-18- +30
2.- J. Arruti-A. Arruti 5-2-42-26- +16
3.- Oskar-Murua 4-1-30-35-5
4.- Albaro-Haitz 3-0-7-48--41

* **P.:** Postua. **Izenak. Pu:** Puntuak.

I: Irabazi. **TA:** Tantoak alde. **TK:** Tantoak kontra. **TD:** Tanto diferentzia.

Finalaurdenak, emaitzak

Martxoak 19, igandea:

A) 17:00: Zumeta-Galarraga 22
Inaxio-Dolo Errasti 2

E) 18:00: J. Arruti-A. Arruti 22
Beñat-Andoni 13

D) 19:00: Agirretxe-Lorenzo 22
Iban-Alazne 12

B) 20:00: Jokin-Enrike 22
Oskar-Murua 12

Finalerdiak

Martxoak 26, igandea:

■ 17:00 Jokin-Enrike / Agirretxe-Lorenzo.

■ 18:00 Zumeta-Galarraga / J. Arruti-A. Arruti.

Finalak

Apirilak 1, larunbata.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

Kalezarreko zaintzadun etxebizitzaren auzunerako ile-apaintzaile bat behar da

Matia Fundazioa Kalezarren eraikitzen ari den zaintzadun etxebizitzaren auzunean jarriko duten ile-apaintzaile kudeatzeko jende bila ari da. Epe laburrean aukeratu nahi dute ile-apaintzailea, eta beraz, interesdunek euren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte martxoaren 24 bitartean.

Aurreikuspenen arabera, 2023ko udaberri-uda inguruan jarriko da martxan Kalezarreko auzunea. Ile-apaintzaile kudeatzeko interesa dutenek edo horri buruzko informazio gehiago nahi dutenek Matiarekin jarri behar dute harremanetan: arantza.machinena@matia.eus helbidean edo 696 259 565 telefono zenbakian.

Matia Kalezarren eraikitzen ari den eraikina auzoan erabat integratuta egongo da. Zaintza eredu berria jartzearekin batera, auzunearen diseinu arkitektonikoa ere berritzailea izango da, diseinu instituzional zurruna albo batera utzita. Lorategia izango du eta herri-erorri irekitako auzoa izan-



Zaintzadun etxebizitzaren auzunean jarriko duten ile-apaintzaile kudeatzeko jende bila ari da.

EPEA

“Interesdunek euren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte martxoaren 24ra bitarte”

go da. Ile-apaintzaile ere herri-guztiari irekita egongo da.

Zaintza eredu berriari lotutako deialdiak

Zaintza ekosistema propioa eraikitzeko bidean, hitzordu gehiago deitu dira asteotarako:

Martxoak 23, osteguna

■ 18:00 Zaintzari lotutako

hitzaldi zikloa Potxoenean: “Ekofeministotik zaintza ekosistema berriak eraikitzen”.

■ Hitzlariak: Mirene Begiristain, Marta Barba.

Martxoak 29, asteazkena

■ 18:00 Zaintza eredu berria ezartzeko urratsak aurkezteko saio irekia Artzabalaren.

Apiriletik uztaile

■ Formakuntza saioak etxeko arreta zerbitzuan ari diren langileentzat. Interesdunek Gizarte Zerbitzuetan eman dezakete izena.

Antolatzaileak: herritar eta eragile talde bat eta Udala.

Beterri Buruntza Mankomunitatea, zuzendari bila

Udalerrri hau barne duen aipatu mankomunitateko zuzendari lanpostua bitarteko bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak kaleratu zituzten martxoaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Lotura horretan dituzuen xehetasunetako batzuk segidan:

- Lanpostu-mota: Funtzionaria.
- Sailkapen-taldea: A1.
- Eskala: Administrazio Orokorra.
- Azpieskala: Teknikoa.
- Dedikazio mota: Dedikazio berezia.
- Lanpostu-mailako osagarria:

25. maila.

■ Lanpostuaren balorazioaren araberrako ordainsaria: 52.711,65 euro.

■ Hizkuntza eskakizuna: 4.

■ Derrigortasun-data: 2022ko martxoaren 28a.

■ Eginkizunak:

-Ekimen guztiak planifikatu, zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea.

-Hainbat batzorderen aurrean erantzutea.

-Mankomunitatearen ordezkari izatea.

-Kudeaketa ekonomiko-finantzarioari laguntza ematea (kudeaketa-planak eta aurrekon-

tuak).

-Administrazio-kudeaketari laguntzea (baterako finantzaketa-prozesuak).

■ Eskabideak: presentzialki Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean (Herritarrei Arreta emateko Bulegoa), bai eta elektronikoki ere, Mankomunitatearen egoitza elektronikoa, beterriburuntza.eus web orriaren bidez. Horretarako hamar egun baliadun izango dira, martxoaren 16tik zenbatzen hasita.

■ Izendatu ez diren hautagaiekin enplegu-poltsa osatuko dute.



Gaztetxoentzako literatura topaketa

Yolanda Arrietaren

Irakurketa-solasaldia antolatuko du Sutegi udal liburutegiak Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako gaztetxoentzat apirilaren 25ean, 18:00etan liburutegian bertan. Yolanda Arrietaren ‘Zazpi pertsonaia istorio bila’ liburua hartuko dute ahotan. “Yolanda bera izango dugu irakurketa-partekatze honetan bidelagun”. Hitzordurako izena liburutegian bertan eman beharko da aurrez, liburuak ere bertan eskura ditzakezue.

Kirol Astearen izen-ematea

Martxoaren 31n itxiko dute Usurbil K.E.-k, Usurbil F.T.-k eta Pagazpek apirilaren 11tik 14ra, 10:00-13:00 artean LHko gaztetxoentzat antolatutako Kirol Astea. Izena <https://labur.eus/n0oTH> estekan eman ahalko da martxoaren 31 baino lehen.

Udaleko lan

Eskaintza Publikoa

Udal erregistrora joanda nahiz telematikoki, usurbil.eus atarian eman ahalko da izena apirilaren 3ra arte. 26 lanpostu eskainiko ditu Usurbilgo Udalak Lan Eskaintza Publikoaren bidez. Informazio gehiago, martxoaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofizialean edo abenduaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Baita noski udaletxean edo usurbil.eus atarian ere.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume batentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarre-ran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako

ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jabetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 602586014

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsuan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsuan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. Harremanetarako: 688 645 491 (Nahia)

BESTELAKOAK

Sigma markako josteko makina elektrikoa salgai. Harremanetarako: 671 916 587.

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Futbol partidak**Hararen:****Martxoak 25, larunbata**

■ 9:00 Infantil neskak:

-Usurbil FT A

-Intxurre

-Usurbil FT B

-Martutene B

■ 10:15 Alebin neskak.

■ 11:45 Infantil mutilak:

-Usurbil FT

-Astigarraga Mundarri

■ 15:45 Preferente mutilak: Usurbil FT-Touring B

18:00 Preferente neskak: Usurbil FT-Hernani CD B

Martxoak 26, igandea

■ 12:00 Kadete neskak: Usurbil FT-Goierrri Gorri B

■ 15:30 Jubenilak B: Usurbil FT B-Kostkas D

■ 17:45 Erregionalak: Usurbil FT B

-Dunboa Eguzki CD

Futbol partidak**Usurbildik kanpo:****Martxoak 25, larunbata**

■ 11:30 Kadete

preferenteak, Beasainen:

-Beasain SD B

-Usurbil FT

Martxoak 26, igandea

■ 11:00 Jubenilak A, Zumarragan:

-Urola KE B

-Usurbil FT

■ 11:30 Kadete

preferenteak, Herreran:

-Sporting de Herrera

-Usurbil FT B

Boleibol partidak**Martxoak 25, larunbata**

■ 12:30 Oiardo kiroldegian

Udarregi-Arizmendi B

Eskubaloi partidak**Hararen:****Martxoak 25, larunbata**

■ 16:30 Kadete mutilak:

- Usurbil KE

- Hernani Onddi ET

■ 18:15 Jubenil neskak:

- Urbil Usurbil KE

- CIMDE Elgoibar

Zarautzen:**Martxoak 25, larunbata**

■ 19:30 Aritzatalde

kiroldegian:

- Txikipolit Zarautz ZKE.

- Usurbil KE.

**Zorionak Ani!**

11 urte dagoeneko.

Ondo pasa eguna lagunekin eta familiarekin!

Muxu potolo bat.

**Zorionak Oihan!**

Martxoaren 11n 10 urte

dagoeneko! Asko matte

zaitugu!! Besarkada erraldoi bat etxekoan partez!

Goardiako farmaziak

Osteguna 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 25 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 27 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 30 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

Ostirala 31 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda martxoa

24 ostirala

■ **Soinurbil:** Habia taldearen "Hiru hari, hiru ahots" emanaldia. 18:30ean Sutegiko auditorioan.

25 larunbata

■ **Kantu-jira.** 12:00etan Mikel Laboa plazan.

26 igandea

■ **Ordu aldaketa.** Ordu aldaketa: goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.

■ **Soinurbil:** Caparrosoko musika banda. 12:15ean kalean, 13:00ean frontoian.

■ **Aginaga Winter Series txapelketa herrikoia**ren finalerdiak. 17:00etan. Ikus 19. or.

Habia taldearen 'Hiru hari, hiru ahots' emanaldia Sutegin

Maia Iribarne Olhagaraiak biolina jotzen du, Elena Hairak biola eta Amaia Hiriartek biolontxelo. Hori gutxi balitz, kantari apartak dira hirurak. Ostiral honetan eskainiko duten kontzertuan herri musika eta musika klasikoa uztartuko dute.

Habia taldeko hiru musikariak Nafarroa Behereko Bastidakoak dira. 2019an elkartu ziren lehen aldiz, "Animalia" izeneko ikusgarriaren sorkuntza prozesuan. Kristof Hiriart da talde honen zuzendari artistikoa. Lehen diskoa duela bi urte plazaratu zuten eta askoren arreta piztu zuten. Tradiziotik abiatuta, sorkuntza berriak plazaratzen dituzte.



Ostiral honetan arituko dira Sutegin, Soinurbil zikloaren baitan.

Martxoak 24, ostirala

■ 18:30 Habia taldearen "Hiru hari, hiru ahots" emanaldia Sutegiko auditorioan.

■ Sarrera: 5 euro, aurrez usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Larunbateko kantu-jira Mikel Laboa plazatik abiatuko da

Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak Mikel Laboa plazan elkartuko dira, ohi bezala, eguerdiko 12:00etan. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea.

■ Martxoak 25 larunbata, eguerdiko 12:00etan Potxoenean.

"Ekofeminismotik zaintza ekosistema berriak eraikitzen"

Usurbilgo Udalak antolatu duen hitzaldi zikloaren baitan, Mirene Begiristain eta Marta Barba arituko dira solasean Potxoenean.

■ Martxoak 23 osteguna, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Datozenak

Errigoraren produktuak eskatzeko azken egunak

"Nafar hegoaldeko uzta eskutik esku-ra" kanpainako oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak errigora.eus bidez edota NOAUA! Kultur Elkartearen eskatzeko azken egunak dituzue. Martxoaren 29a baino lehen bideratu beharko dituzue eskabideak.

'Irati' filmeko sarrerak martxa onean ari dira saltzen

Gogoan izan, apirilaren 2an 19:00etan Sutegin 'Irati' filma ikusteko aukera NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik. Sarrerak 6 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA!ren egoitzan. Egoitzan bertan bazkideek merkeago, 4 eurotan.



Sarrerak 6 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA!ren egoitzan.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24
MARTXOAREN 27-tik APIRILAREN 21-era



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92



errigora

errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Bete ezazu despentsa urte guztirako



URDAIRA

Sagardotegia

AGINAGA
943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezlik.




Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

